

NOTA DE PRENSA

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ARRETA INTEGRALEKO UDAL PROGRAMAREN EMAKUME ERABILTZAILEEK 10etik 9,4 PUNTU EMAN DIZKIOTE BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA HERRITARREN GAIETARAKO SAILAK, GIZARTE EKINTZA SAILAK ETA SEGURTASUN SAILAK EMANDAKO ARRETARI

- Genero Indarkeriaren aurkako Zerbitzu Gutuna, udal sailen etengabeko hobekuntzako eta koordinazioko prozesuaren emaitza dena eta Aenorek 2009an ziurtatu duena, udal konpromisoak betez onartu da, eta 10etik 9,4 puntu eman dizkiote.
- 2014an Berdintasun, Lankidetzaren eta Herritarren Gaietarako Sailak 667.937 euro erabili ditu, genero-indarkeria eta sexu-erasoak saihesteko eta biktimei arreta egiteko.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, puntu lilak jarri dira hiriko eraikin enblematikoetako fatxadetan, puntu lilak banatu dira herritarren artean, eta ekitaldi instituzionala antolatu da azaroaren 25ean bertan, Bilboko udaletxean. Gainera, aurten, indarkeria sexista zuzenenaren oinarria den eta berau justifikatzen duen indarkeria sinbolikoa bistaratzeko eta salatzeke, Berdintasun, Lankidetzaren eta Herritarren Gaietarako Sailak ANDRE TA JABE kanpaina gauzatu du. Horretan hainbat eremutatik datozen eragile sozialen topaketa eta eztabaida sustatu dira, baita arte-sortzaileen parte-hartzea ere, artearen bidez indarkeria sexistaren gaitzespena adierazteko.
- Bilboko Udalak prebentzio politikak lehenesten jarraitzen du bere jardueran, bai espazio pribatuan bai espazio publikoan eta gizartean emakumeek jasaten dituzten indarkeria mota guztiak desagerrarazi beharra azpimarratzeko asmoz. Beste jarduera batzuen artean, nerabe eta gazteentzako tailerrak, emakumeak ahalduentzako programak eta prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak garatzen ditu.

Bilbon, 2014ko azaroaren 24an. Bilboko Udalak bilbotarrak bultzatu nahi ditu bizitzaren hainbat eremutan gertatu ohi diren indarkeria sexista mota guztiak eta, zehatz-mehatz, egunero emakumeek jasan behar duten indarkeria sinbolikoa identifikatzera eta horiek gaitzestera.

Azaroaren 12an World kafeak hainbat eremutako ehunka gizon eta emakume bildu zituen: mugimendu asoziatiboa, kultura, artea, politika, kirola, lana, gazteria, komunikabideak edo sexuen arteko aldeak. Horrez gain, jarraibideak eman zituen, azaroaren 22an, larunbatean, Emakumeen Azaroaren 25eko plazak 15 artista gazteren sortze-lanak har ditzan. Obra horiek topaketaren gogoetak adieraziko dituzte artearen bidez, baita indarkeria sexistaren gaitzespena ere.

“Andre ta Jabe” kanpainaren goiburuak adierazi bezala, Bilboko Udalak, Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Sailaren bidez, bilbotarrak bultzatu nahi ditu herritar guztien garapen eta ongizate osoak oztopatzen dituzten indarkeria motak identifikatzera. Indarkeria sinbolikoa antzematea, salatzea eta eraldatzea beharrezko oinarria da, indarkeria sexistarik ez duen berdintasunezko gizarte sortzeko.

Indarkeria mota hau salatzeke asmoz, Bilbo morez jantzi da berriro ere: hiribilduko eraikin garrantzitsuek -udaletxea, Arriaga antzokia, Deustuko Unibertsitatea, IilaEHU eta Euskaltzaindia, besteak beste- Puntu Lila jarri dute beren fatxadetan. Barrutietako Udaltegiek, ikastetxeek, osasun zentroek, elkarteek eta bestelako udal espazioek ere Azaroaren 25eko irudia erakutsiko dute, beren gaitzespena adierazteko. Gaitzespena eta aldarrikapena azaroaren 25ean, asteartean, gauzatuko diren honako bi ekitaldi hauetan agertuko dira: Adierazpen Instituzionala irakurtzea Bilboko Udalean goizeko 10:00etan eta Mugimendu Feministak eta Emakumeenak arratsaldeko 19:30ean deitu duen ohiko manifestaldia.



Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunaren aldeko IV. Udal Plana

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Sailak diseinatu duen Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunaren aldeko IV. Planak “gaitasunen ikuspegia” nabarmentzen du; horren arabera, emakumeen segurtasuna, autonomia ekonomikoa, ordezkari sozial eta politikoa, eta lan eta familia bizitzak uztartzea alde garrantzitsuenak dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko.

Prebentzioa eta arreta

Prebentzioa:

Bilboko Udalak uste du gazteen balioak eta jarrerak aldatzea genero-indarkeriarik gabeko gizarte eraikitzeko bidea dela. Alde horretatik, Udalak honako ekimen hauek garatzen ditu:

- **Genero Indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko tailerren programa:** Bereziki Bilboko ikasleei zuzentzen zaie. Bere helburua desberdintasuna eragiten duten eta horri eusten dioten aldeekiko sentikor bihurtaraztea eta maitasuna banakako eta taldeko osasunaren elementu positiboa, mendekotasunik sortzen ez duena, dela irakastea da. Helburu horri helduta, gazteek indarkeria egoerak ezagutu, identifikatu eta horien aurrean erreakzionatzeko behar diren estrategiak ematen ditu.

Área de Igualdad, Cooperación
y Ciudadanía.
Berdintasun, Lankidetzeta eta
Herritarren Gaitza
PROGRAMA MUJER,
SALUD Y VIOLENCIA



2013-2014 ikasturtean 21 ikastetxek, 108 ikasle taldek, eta, guztira, 14 eta 18 arteko 2.250 neska-mutilek parte hartu dute programa horretan.

- GeuBiok: Eskola-umeen arteko prebentzioaren eremuaren barnean, Bilboko Udalak Geu *Geu biok! erasorik gabeko internet gunea* (2013) webgunea dauka, sare sozial nagusietan ere agertzen dena. Bertan gazteek eta nerabeek parte hartzeko bidea aurkitzen dute, genero-indarkeria prebenitzeari begira, maitasunaz, amodio kontuez, ezkongai harremanez, berdintasunaz, sexualitateaz, indarkeriaz eta abarrez hitz egiten dutela. 2013an webguneak 34.245 bisitari eta 92,58% bisita izan zituen; horietatik %92,58 berriak izan ziren. Horrek Geu Biok webguneak parte-hartze aktiboa sortzeko eta horretan sartzen diren neska-mutirik ahalduzko duen boterea erakusten du, haien zalantza argituta aholku-sail birtual anonimoaren bidez.
- Prebentzio komunitarioaren eremuko Emakumea, Osasuna eta Indarkeria programa prebentzioaren euskarrietako beste bat da aspalditik, eta emakumeen sexu eta ugalketa osasunak hobetu eta genero-indarkeriako egoerak saihestu beharrean oinarritzen da. 17 herrialdeetako 32 emakumek ahalduzko eragile jardun dute beren komunitateetan efektu biderkatzailearen bidez eta, horrela, 220 emakumerengana heltzea aurreikusi da. Hori guztia ahalduzko eragileen prestakuntzaren eskutik egin da. Horrez gain, "Emakumea, Osasuna eta Indarkeria" tailerrak 33 informazio eta sentsibilizazio saio abiarazi ditu 2014ko abendura arte, hau da, ia baino hiru gehiago. Saio horiek mezua erabiltzaileei, profesionaleri eta elkarte laguntzaileetako boluntarioei helaraztea ahalbidetzen dute. Gainera, 2014an lankidetzako protokoloa garatu da, emakumeen genitalen mutilazioa gauzatzen duten herrialdeetatik datozen familien neska bilbotarren ablazioa prebenitzeko. Bilbo ESik, Udala Osasunak, Hezkuntza Sailak, Gizarte Ekintzako foru eta udal sailek eta Auzolan moduluek protokolo horretan lagundu dute.

Sexu-erasoen aurkako kanpainak:

Bilboko Udalak herritarrek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan konpromisoa hartzea nahi du. Horren adibide dira proposatu diren ekimen guztiak, adibidez, bai Aste Nagusian bai Bilboko auzoetako jaietan – Santutxu, San Ignazio, Bilbo Zaharra, Uribarri, Zorrotza, Zaballa, Miribilla eta San Adrian eta San Frantzisko- sexu-erasoen aurka gauzatu diren kanpainak. Bilboko Konpartsak elkarrean eta merkatarien eta ostalarien elkarrean bidez, sexu-erasorik gabeko jaiak sustatu dira eta, horretarako, pertsonen arteko harremanek errespetuan oinarritu behar dutela bultzatu da.

2013-2014 ikasturtean Ibaiondo eta Deustu-Bidarte Udalgietan eman diren autodefentsa feministako tailerrek 22 emakume izan dituzte partaide. Eremu publikoan emakumeen segurtasuna indartzeko ekimen horren helburua genero-indarkeriaren aurrean emakumeak ahalduzko da.

Arreta

Genero Indarkeriaren aurkako udal protokoloaren helburu nagusia emakumeen bizimodu autonomoa eta indarkeriarik gabekoa eskuratzea da. Bertan Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Sailak, Gizarte Ekintzako Sailak eta Segurtasun Sailak lan egiten dute batera.

Udal sailen arteko lan koordinatuari esker, arreta eraginkorra eskaintzen da, Bilboko Udaleko zerbitzuetara doazen emakumeen beharrian eta interesei erantzun berehalakoa, osoa eta espezializatua emateko gai dena. Koordinazio-sareak eratu dira, eta horiek 2011tik Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Sailak eta Gizarte Ekintzako Sailak batera genero-indarkeriako biktimen seme-alabei eskaintzen dieten arretan islatzen dira. Izan ere, aldi berean seme-alaba horiek zuzeneko biktimatzat jotzen dira.


Halaber, nabarmenak dira erakunde arteko lankidetzeta protokoloak, adibidez, Bilboko ertzain-etxearekin edo Bilbo-Basurtu ESIko Osasun Sailarekin sinatutakoak. Eta ez dira ahaztu behar beste elkarte batzuekin (hala ONCE nola Fekoor) sinatutako lankidetzeta hitzarmenak, hiribilduan dauden kasu guztietarako arreta pertsonalizatua eta berehalakoa bermatzen dutenak.

2014ko urtarriletik urrira bitartean Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak 177 emakumeri eman die arreta; horietatik 105ek Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Sailera joan, eta bertan beren prozesuarekin jarraitzea erabaki dute.

Horrez gain, sail horrek berariazko gizarte arreta eman die 429 emakumeri, horietatik 220 lehenengo aldiz joan direla aurtan. Sartzeko bide nagusia SMUS (Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua) da, baina, horrekin batera, emakumeak beren ekimenaz zein Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Osakidetzak, Modulu psikosozialek eta beste erakunde batzuek bideratuta ere joan dira horretara.

Udal zerbitzuetara jotzen duten emakumeak askotarikoak dira, ez baitago biktima edo erasotzaile mota zehatzik. Denentzat berdina dena emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasun sistema da. Hori dela eta, beharrezkoa da biztanleria talde guzti-guztiei (emakume gazteetatik 65 urteko emakumeetara, estatistiketarako ikusezinak baitira) edo genero-indarkeriako kasuetako gainerako biktimei (adibidez, biktima diren emakumeen seme-alabak) laguntzea.


2014ko lehenengo hamar hiletan Udaleko harrera programak 14 kasu jaso ditu, guztira; horietatik 11 berriak ziren. Zerbitzua behar izan duten emakumeen ardurapean 12 adingabe eta beste heldu bat zeuden. Nabarmendu behar da erregistratzen diren kasuak nabarmen gutxitu direla 2012tik, 2012an 32 eta ekitaldi honetan 14 izan baitira, honako taula honek agertzen duen bezala: Sistemak beste emakume batzuen berehalako beharrianetarako egokiagoak diren beste baliabide mota batzuetara bideratzea ahalbidetzen du, eta euskal sistemako beste baliabide eta zerbitzu batzuekiko koordinazioak harrera pisuetan eman beharreko denbora laburtzeko aukera ematen du.



Genero Indarkeriaren aurkako Arreta Osorako Zerbitzu Gutunak etengabeko hobekuntzako prozesuan egon den jauzi kualitatiboa agertzen du. Udal zerbitzuak eskaintzeko orduan dauden konpromisoari eta kalitateari eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren babesari esker, programaren prestazio-maila onak berma daitezke, horietan sailen arteko koordinazioa funtsezkoa dela:

- SMUSrekiko koordinazioa: Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Gaietarako Saila egutegiko 4 egun igaro baino lehen (udal konpromisoaren arabera) jartzen da harremanetan larrialdi egoeran SMUSren arreta jaso duten emakumeen %99,3rekin.
- Aholkularitza juridikoa. 75 emakumek informazio kontsultak egin zituzten, eta %100i erantzun zitzaaien.
- Arreta psikologikoa 120 emakume joan dira arreta psikologikoko programetara, eta horri buruz jaso diren eskaeren %100i erantzun zaie.
- Arreta irisgarri eta unibertsala. Desgaitasuna duten emakumeen %100a (5 guztira) Zerbitzuan artatuak izan dira baldintza- eta berdintasun-maila berean.
- Atzerriko edo Zeinuen hizkuntzako interpretazioa. Eskaeren %100ari erantzun zaio (40 guztira).

2013an egindako gogobetetze-inkestaren arabera, emakume erabiltzaileek zerbitzuari (jasotako tratua eta konfiantza zerbitzuan) 10etik 9,4ko balorazioa eman diote.



UDALA. AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001 Bilbao

Tel.: 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 Faxa: 94 420 52 16

e-posta: prensa@alcaldia.bilbao.net www.bilbao.net